

## Anthology of Apologists and Detractors of the Basque Language

Juan Madariaga Orbea

Reno (Nevada), Estatu Batuak, 2006

Zazpiehun eta hiru orrialdeko liburu mardula osatu du oraingotan Juan Madariaga Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle eta historialariak, euskarak izan dituen aldeze eta aurkariak idazgai hartuta. Nevadako Unibertsitateak Renon duen *Center for Basque Studies* delakoaren eraginez moldatu du lana egileak, eta argitalpena Zentro honen eta Bizkaiko Foru Aldundiaren gain gelditu da. Tituluan berean ikus daitekeen bezala, ikerketa ingelesez kaleratu da, gaur egun, hiztegiaren laguntza beharko badugu ere zenbait aldiz, nornahiren esku dagoen nazioarteko hizkuntzan, eta uste dut ez dela kalterako, mundu mailako komunikabideen garapen eta zabal-kundeak gero eta gehiago idatzaraziko baitie euskal ikertzaileei gehienxkoenen irispidean dagoen hizkuntza batean. Hizkuntza hau frantsesa edo gaztelania izan liteke hein batean, baina ez da dudarik egungo egunean ingelesak aise hobeki betetzen duela elkarrekiko *lingua franca*-ren funtzio hori. Sarean informazio bila abiatzen garenean lasaitu ederra hartzen dugu xerka genbiltzana alemanez edo errusieraz ez, baizik ingelesez dagoela ikusten dugunean, eta uste izate-

koa da alderantziz ere gertatuko dela, hots, aleman eta errusiar horiek adibidez, euskaraz arduratzen denik ere izanen baita horien artean segur aski, gure hizkuntzaren ingurukoak jakin nahi dituztenean ez dutela pena handirik hartuko informazioa ingelesez aurkitzen dutenean.

Lanak bi zati nagusi ditu: lehena hemeretzigarren orrialdetik ehun eta hirurogeita hamazazpigarrenera hedatzen da eta *From Tubal to the excellence of the Basque language during the Foral area, 1545-1876* du izena; bigarrenak, berriz, ehun eta laurogeita batgarrenetik seiehun eta berrogeita zortzigarrenearaino hartzen du, eta *An anthology of texts on the Basque language (from the sixteenth to the nineteenth centuries)* darama izenburutako. Gero bibliografia zehatza dator, non lehenik egileak miatu eta arakatu dituen liburutegiak ageri baitira eta gero erabilitako materiala, hau bi sailetan sailkatuak: aurrena liburuarendako funtsezkoena gertatu diren lanen bilduma heldu da (*primary material*) eta gero autoreak lagungarritzat ibili duena (*secondary material*). Ondoren, liburuaren azken atalean, hitzen aurkibidea sartu

du Madariagak, irakurleari bilaketa lana errazte aldera.

Liburuari dagokionez, garbi dago egileari ahalegin handiena eskatu dion alderdia lehenbizikoa dela, haren ekarpena batez ere hor ikusten dela, ikerketa lan handiena hor isuri duela. Izan ere, eta liburuak iker-gune nagusi euskara baldin badu ere, bistan da horren inguruan erran direnak ulertzeko garaian garaiko gizarte eta politika giroa ezagutu behar dela, eta honetan, jakina, historialariek dute hitza hizkuntzalarion aitzinetik, gure azterketak normalki liburuetara mugatu ohi baitira, ez baikara hainbeste kezkatzen obra sortu zen garaiko ingurumariez, Historiaz arduratzen direnek aztergai hartu ohi dituzten lanen inguru-minguruez. Nik, egia erran behar badut, gauza anitz ikasi ditut Juan Madariagaren lanean; aipatzen dituen autoreetako asko (Poza, Etxabe, Beriain, Oihenart, Larramendi, Mendiburu, Kardaberatz, Ubillos, Astarloa, Arana-Elizalde, e.a.) lehendik ezagutzen nituen jakina, nire ikerketarako erabili ditudalako, baina beti hizkuntzaren aldetik, maiz onomastikaren aldetik, begiratu eta baliatu ditut, eta Madariagak, berriz, historialaria izanik, beste ikuspuntu batetik aztertzen ditu, beste era batera ikusten ditu lanok, eta hori, ezbaierik gabe, aberasgarria da hizkuntzalariondako ere, historialariendako ez ezik.

Gainera, eta aipatutako idazle zerrandan ageri den bezala, "alde hone-takoak", euskaldunak ezagutzen nituen gehienbat nik eta ezagutzen dituzkete gehienbat nire modukoek, baina ez hainbeste "beste aldekoak" (Mariana, Fernández de Castro, Brunel, Aulnoy, Mayans, Traggia, Martínez Marina...), hots, euskararen aurka mintzatu direnak, izan da-din Madariagaren liburua iritsi arte

haien lanak, zenbaitetan bederen, eskumenean ez genituelako, izan da-din maizkara haien izkribuak irakur-tzeko gogorik izaten ez genuelako, eta bistan da ariketa hau ez dela kal-tegarria, Aitzitik, ongi heldu zaigu denen iritziaren berri jakitea, gero gure idazkiek oinarri sendoagoa izan dezaten, hobeki funtsaturik egon daitezen baizik ez bada ere. Puntu honetan argi dago gaztelaniaz idaz-ten zuten euskararen aldeze zenbai-ten jarrerak ere kontrako ondorioa izan zuela, euskararen betegintzarrea etengabe nabarmentzeak, gure arra-zaren garbitasuna behin eta berriz azpimarratzeak edo Tubalek ekarri-tako euskara ibiltzen dugun euskaldu-nok espainoletan espainolenak gare-la baiesteak (*vascoiberismo* deitu izan denak) segur aski ez ziela grazia han-dirik eginen ama hizkuntza gaztela-nia zuten autoreei, eta hauen ihar-despena bultzatu zuela, nolabait erran. Zernahi gisaz, oroitu behar dugu euskara, Espainiako inperioa-ren barnean, beti hizkuntza txikia izan dela eta usu defentsarako gailu-ak izan zirela apologia lanak, hots, besteren ziriari erantzuteko edo era-so irekiari aurre egiteko sortutako tresnak.

Liburuaren bigarren atalean, kronologikoki sailkaturik, testu an-tologia ematen du egileak, baina honetan izenburua motz gelditzen dela bistako gauza da, aukeratutako testu zatiaren aitzinetik testu egilea-ren sortze data eta sorlekuaren, bi-ziaren, prestakuntzaren eta abarren gaineko hainbat argitasun ematen dizkigulako Madariagak. Erratera-ko, eta euskara sobera maite ez zuen Marianaz ari delarik, honen jarrera hobeki ulertzen laguntzen digun ai-pu hau sartzen du: «...his interest was in cultured and classical lan-guages, and he composed nearly all of his work in Latin. Because it of

this, it is inevitable that he would have viewed the Basque language as he did: a barbaric slang unworthy of attention».

Jakina da liburuan azaltzen diren autoreak arrunki etimologian oinarritzen direla euskararen aspaldikotasuna eta etorkia argitzeko orduan, onomastikan batez ere, antroponimoen eta partikularzki toponimoen etimologian, nahiz egungo ikuspuntutik begietsirik ematen dituzten azalpenak, euskararen aldekoek eta kontrakoek, gehientsuenetan, ezin diren seriotan hartu. *Amezket*a herri izena *mezkit*a-tik eratorri ondoan euskaldunok jatorriz mauruak edo juduak garela erratea edo *bizkaitarrak* (euskaldunok) 'vice-caines', 'casi-caines' edo 'Kainen imitatzaileak' garela baiestea ez da gaur aise onartuko den gauza. *Osma*-ren etimoa den *Uxama* 'ama hutsa' dela erratea ere ez da, egun, erraz onesten ahal, honek euskaldunon etorkia argitzeko holako ondorenik ez izanagatik ere. «Kantabrook» erromatarrak garaitu genituela eta besterekin nahasi gabe diraugula adieraztea oinarritzko gauza izan da gure apologisten lanetan, eta, genealogiekin batean, deitura eta honen etimologia funtsezkoa izan da. Honela dio egileak: «Of course, in the case of surnames, and as we shall see later, place names, a device is used that with time becomes both repetitive and obsessive: etymology. Since all surnames are rooted in a house of nobility and constitute a metaphor of its iden-

tifying characteristics, they must necessarily have some meaning that alludes to the origins of the nobility that can be uncovered through its etymology».

Zernahi gisaz, liburuan aipatzen diren autore guztiak ez dira maila berekoak alderdi honetatik, eta garai guztiak ere ez dira berdinak, gure egunotara hurbiltzen garen heinean etimologia lanak seriotuz eta kalitatean irabaziz baitoaz. Dena dela, ematen diren azalpen etimologiko horien azpian, egileak garbi ikusten eta adierazten duen bezala, euskararen eta euskaldunen aldeko edo kontrako ideologia izaten da, eta azkena erakusten dutenen artean, gibelean, anitz aldiz Estatuaren aparatuari antzeman diezaiokegu, batasun gaizki ulertu baten bila abiatu mugitzen duen diruaren hotsa eta txin-txina hauteman dezakegu.

Askoz gauza gehiago nituzke errateko, baina bego horrenbestekin, aski eta sobera idatzi baitut dagoeneko. Liburu ederra da beraz, Juan Madariagarena, jakinduriaz bete dagoena, eta ingelesez izkiriaturik egotea mesedegarria baizik ez da izanen munduan barna gure gauzen berri jakin nahi dutenendako. Bukatzeko, egileari goresmenak eman eta lanean orain arte bezala jarrai dezan desiratzea besterik ez zait gelditzen.

*Patxi Salaberri*  
*Nafarroako*  
*Unibertsitate Publikoa*